

Isiltasunaz gogoratu zuten Velez



Solaskideak programako kideak baikor eta pozik urteko afarian

Solaskide egitasmoari esker elkarrekin biltzen diren batzuek ostegunean egin zuten urteko afarian. 20 euskaldun zahar eta 60 euskaldun berri dira eta esperientzia bi aldeentzat interesgarria dela eta baikorrak dira. /4-5

Lasarte-Oriako Alkatezak deituta, larunbatean eguerdiko 12:00etan hainbat herritar bildu ziren Udaletxe aurrean, Isabel Velez herritararen hil-keta gaitzesteko. Ordu laurden egon ziren isiltasunean eta bukaeran txalo egin zuten bezperan, ostiralean, ustez bere semeak hil zuten 48 urteko herritarra gogoratzeko.

Jaurlearitzako Barne sailak jakinarazi duenez, Ertzantzak 23 urteko semea, ustez arazo psikiatrikoak dituena, atxilotu egin zuen ostiralean bertan hiltzailea delakoan.

Gertaera

Ostiralean, 14:00ak aldera izan zen heriotzaren berri Oria auzoko Zelaialde kalean. Bizilagunek deitu zioten Ertzantzari gazte bat emakumea jipoitzen ari zela eta. Ustez labankadaz egindako zauri larriak zituen, anbulantziari deitu zioten hauek, baina Osasun-zerbitzuek ezin izan zuten ezer egin bertara iritsi zirenean.



Ana Urchuegia alkateak parte hartu zuen ordu laurdeneko kontzentrazioak. Erdiko arkuaren azpian dago.

Kontzentrazioa eta batzarra

Lasarte-Oriako Ana Urchuegia alkateak, gertakariaren berri izan eta, ohar baten bidez, ostiraleko hil-keta gaitzetsi eta larunbatean kontzentrazioan parte hartzeko deia

egin zien herritarrei. Alkateak berak parte hartu zuen larunbat eguerdiko ordu laurdeneko isilunean beste 200 lagun ingururekin batera. Beste zenbait zinegotzi eta Jaurlearitzako Genero Indarkeriaren biktimei laguntzeko Zuzendaritzako eta

Emakundeko ordezkariak ere izan ziren bertan. Hainbat kazetari eta telebista kamara ere izan ziren Udalaren aurrean.

Bestalde, gaia aztertu eta gaitzesteko ez ohizko Udal batzarra deitu dute gaurko. •

Ederki pasa zuten haur eta gurasoek antzerkian

Microglobophone, katraska konpainia katalanaren lanarekin oso ondo pasa zuten larunbat arratsaldean Kultur Etxean izan ziren haur eta helduek. Hitza ia erabili gabe, musika eta soinuekin batera, keinu eta gorputz adierazpenaren bidez hainbat gertaera barregarri sortu zituzten taldeko bi aktoreek. Tarteka ikusleen artera ere jaitzi ziren eta publikotik ikusleren bat ere atera zuten oholtzara. Lan ona egin zuten irudiko bi aktoreek. •



ALBISTEA /2

Andaluziako Eguna ospatuko dute asteburuan

ELKARRIZKETA /3

Iñaki Santos kimikariaren lana sagardoaren maila hobetzeko

ALBISTEA /6

Udaltop, Euskara Zerbitzuen II. topaketa, berriaz Lasarte-Orian

GURUTZETA SAGARDOTEGIA

ZATOZ TXOTX EGITERA!

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURELEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

UDALA

Obrak eta Hirigintza saila irekia

Udaletxeko Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrera tokialdatu dira eta gaurtik zerbitzua publikoarentzat irekita egongo da, behin-behinean, harik eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte. •

VI. ZINEMA SOZIALA

Artea eta gizartea aztergai gaur

La joven de la perla, hori da gaur arratsaldeko 17:30ean, Danok Kide elkarte antolatzen duen VI. Zinema Sozialaren bigarren jardunaldian ikusiko den filma.

Gaur literaturak gizartean duen eragina eta garrantziaz hitz egingo dute saioan eta horretarako Jose Javier Fernandez, gonbidatu dute. •

450 tona elikadura Saharara bidean

VI. Sahararen Euskal Karabana atara zen Gasteizetik, larunbatean.

Sahararen herriaren lagunak taldeak jakin arazi digunez, aurtan 450 tona bideratu dira Saharako kanpamentuetara. Honela, iaz baino 50 tona gehiago bildu dira eta honek Euskal Herriak Saharar herriarekin duen elkartzuna erakusten du.

Hau guztiagatik, oso pozik agertu dira Sahararen herriaren lagunak eta eskerrak eman nahi die ekimenean elikagaiak eman dituzten herriartar guztiei.

Honetaz gain, karabanako ohizko kamioi kopururi bat gehitu behar izan dituela ere adierazi du taldeak.

Era honetara, Donostiako autobus gidari bolondreskek 9 kamioi daramatzate Alacantera elikagai eta konpresaz beteak.

Saharako maratokia

Era berean, ostiralean Saharako maratonia parte hartuko duten herriartarrek Lasarte-Oriatik abiatu ziren Tindouf-eko basamortuetara.

Elkartasun lasterketa honetako bidaia antolatzaileek idatzi bat bidali dute, non haien helburua, 100 euskal-

dun Saharako maratonia egotea eta hegaldia Loititik ateratzea, burutzen lagundu dieten pertsonen eskerrak ematen dizkieten. "Hau zen egina genuen apustua eta Euskal Herriarren laguntza izan dugu zeregin horretan. Eskerrik asko," diote antolatzaileek.

Haien helburua lortzetik gertu egon direla adierazten dute eta pozik agertzen dira "elkartasun bidaia honekin bat egin dugulako denok eta argi utzi ere euskaldunok bat egingo dugula Saharako herriarekin".

Baina haien esku ez dauden arazoak helburua guztiz ez betetzea ekarri du. Izan ere, Air Algerie hegazkin konpainiak txartelen prezioa aldatzea, ezinezkoa egin du bidaia Bilbotik egitea eta Madriletik abiatu dira guztiak.

"Beste aukera batzuk ikusteko ere oso denbora tarte txikia izan dugu eta atzera egin behar izan dugu haserako bidaia asmoan, alegia, Loititik ateratzea," azaltzen dute.

Hala ere, nahiz eta proiektu saiakera hutsean geratu, esperantza badute antolatzaileek, "noizbait lortuko dugun segurtasunarekin," hitzekin amaitzen baita oharra. •



Igandean ohorezko ardoa eskainiko zaie Semblanteko bazkide eta gonbidatuei. Ondoren elkartean bazkalduko dute.

Andaluziako Eguna ospatuko dute asteburuan

Larunbat arratsaldean, kantua eta dantza kultur etxean Igandean, aldiz, bazkaria Semblante Andaluz elkarte

TXINTXARRI

Ostailaren 28a egun handia ospatzen da Andaluzian eta lurralde honetatik kanpo bizi diren milaka andaluziarrentzat ere egun oso berezia da.

Andaluzia Eguna ospatuko dute mundu osoko andaluziarrek igandean eta Lasarte-Oriatik bizi direnek ere hainbat ospakizun ekitaldi antolatu dituzte astebururako. Aurtan gainera egun handia jai egunez suertatu da eta Semblante Andaluz elkarte kideek egitarau zabala antolatu dute larunbat eta igandearako.

Bihar larunbata jaialdi berezia eskainiko dute Manuel Lekuona kultur Etxean, Semblante Andaluz Kultur Elkarte-ko talde ezberdinek arratsaldeko 19:30etan hasira.

Kantuan eta dantzan arituko dira elkarteko zenbait talde.

Dantza eta kantua

Andaluziako dantzak eskainiko dituzte, Gitanillos del Alba, Duende Flamenco eta Zambra taldeek eta kantuan, berriz, Semblante Rocieroko abesbatzak eta Grupo Sentimiento taldeak arituko dira. Duende Flamenco elkarte neska mutilek osatutako dantza taldea da.

Gainera jaialdian gonbidatu bereziak "Amigos del Sur" taldekoak izango dira. Beraz Semblante Andaluz elkarteak jaialdi bikaina antolatu du larunbatean Andaluziako Egunaren egitarauaren barruan.

Eta igandean ospakizuna Semblante Andaluzek Atsokarren duen elkartera eraman- goko dute. Aurretik Zumaburuko

Arantzazuko Ama parrokian, goizeko 11.30etan hasita, Andaluziako meza tradizionala izango da, Rocio meza alegia. Bertan, Semblante Andaluz-eko abesbatzak kantatuko du.

Bazkaldu aurretik, eguerdiko 13:30ean Ohorezko Ardoa eskainiko zaie elkarteko kide, lagun eta gonbidatuei Semblante Andaluz elkarte. Ondoren, elkartean bertan bazkari herrikoia hasiko da 14:30ean eta bazkalostean, gutxi gorabehera arratsaldeko 18:30 inguruan berriro elkar- teko "Semblante Andaluz" koroak emanaldia eskainiko du, besteak beste Andaluziako ereserkia abestuz.

Ospakizunean elkartera hurbiltzen direnek Andaluziako produktuak dastatzeko aukera izango dute beraz. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Iñaki Santos/ Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea

‘Sagarren ezaugarriak jakiten badituzu, kalitate hobeko sagardoa egin dezakezu’

- EHUko kimikariaren ustez hemengo sagar moten konposaketa ezagutzea oso interesgarria da
- Erresonantzia Magnetiko Nuklear bidezko azterketa, hala ere, kasu oso gutxitan erabiltzen da

Iñaki Santos EHUko kimika fakultateko ikerlariak ‘Euskal Herriko Sagar eta Sagardo moten karakterizazioa. RMN espektroskopiaren erabilera’ izeneko tesia egin zuen duela lau urte eta oraindik ere sagarren ezaugarriak aztertzeke eta kontrolatzeko metodo hau oso baliagarria dela defenditzen du. Lasarte-Oriako ikertzaileak adierazi digunez, ardo ekoizleek erabiltzen dute, ez ordea sagardo ekoizleek. Momentuz, sagarrekin kasu eta azterketa konkretu batzuetan erabiltzen da soilik.

TXINTXARRI

Kalitatezko sagardoa ekoizteko eta honen maila hobetzen joateko helburuarekin egin zuen duela lau urte Iñaki Santos lasarteoriarrak Erresonantzia Magnetiko Nuklearra erabiliz sagarrak aztertzeke metodoari buruzko ikerketa. Zer erantzun izan duen eta erabiltzen den jakiteko berarengana jo dugu.

Gure inguruan, sagardoaren lurraldean Usurbil, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta, Astigarraga, Donostia,... teknologia berriak zabaldu direla uste al duzu? Ala asko dago hobetzeko?

Nire ustez, sagardotegiaren jada ari dira teknologia berriak jartzen, esaterako, prentsa pneumatikoak, altzairu herdoilgaitzarekin egindako upela edo biltegiak, tenperaturen kontrola eta abar, baina garrantzitsuenak eta interesgarrienak, erabiltzen den lehengaia ezagutzea da, hau da, erabiltzen diren sagar motak ezagutzea.

Hemengo sagar moten kontrola izateak, bakoitzaren ezaugarri ezberdinak ezagutzeak ekarriko du kalitatezko produktu baten ekoizpena, antzeko produktuekin besteak beste ardoaren eta txakolina-ekin, gertatu den bezala.

Duela lau urte egindako tesian sagardoa ekoizteko eta bere kalitatea hobetzeko teknologia berrien erabileraren alde egiten zenuen. Zer erantzun izan du? Berdin prentsatzen al duzu?

Duela lau urte eta orain ere bai, sagarren ezagutza eta azterketa kimikoaren alde

nago. Zer daukagun jakin behar dugu produktu on bat egin ahal izateko.

Erabiltzen al da espektroskopoa edo RMN Erresonantzia Magnetiko Nuklearra sagar eta sagardoaren ezaugarriak kontrolatzeko?

Ez da ohiko azterketetan erabiltzen, kontu konkretuentzat erabili da, arazo zehatzen bati erantzuteko, laborategiaren azterketak edo ohiko azterketak balio ez dutenean, egin da RMN bidezko azterketaren bat.

Zure ikerketa egin zenuenetik lau urte igaro dira, onuragarria izan al da? Norbaitek erabiltzen al du?

Ezagutza beti da onuragarria eta kasu zehatz honetan sagar barietatea ezagutzeak ere bai. Ekoizle batzuekin lan egin dut.

Egia esan, espektroskopoa edo Erresonantzia Magnetiko Nuklearra, izena bera ez da oso erakargarria...

Izena ez da erakargarria, baina sarritan erabiltzen den teknika da; gero eta gehiago darabilte kimika, biokimika, fisika, medikuntza edota material berrien arloetan, bai likido egoeran, baita solido egoeran ere.

Izan ere, informazio asko eskuratu daiteke maila molekularri, konposizioari eta dinamikari buruz. Eta gainera unibertsitatean erabiltzen den teknika bat da duen garrantziagatik, eta, esan bezala, eskuratu daitekeen informazioarengatik.

Ardo ekoizpenean egin zuten lehenengo gauza mahats barietateak ezagutzea izan zen. Nire ustez, hori da bidea.



Iñaki Santos ikertzaileak kalitatezko sagardoa ekoizteko, sagarraren kalitatea kontuan izan behar dela azpimarratzen du.

Ardoaren kalitatea hobetzeko erabiltzen dela badakigu... eta sagardoaren ekoizpenean? 90. hamarkadatik erabiltzen da Bordeleko jatorrizko deitura duten ardoak aztertzeke eta guztiok pentsatzen dugu kalitatezko produktua dela. Sagardoarekin ere horrelako zerbitu egin beharko litzateke.

Zure tesiarekin sagarrak bereizteke, sagar barietatea desberdintzeke analisi bakarra nahiko dela frogatu zenuen, haiek duten azidotar, amino-azido, azukre eta polifenol kopuruei esker. Zein garrantzia du horrek?

Garrantzia handia du, analisi bakarrekin, RMN batekin sagarraren konposaketa zein den jakin dezakezu, sagarraren hatz-marka dela esan dezakegu. Eta sagarra ezagutzen baduzu, kalitate hobeko sagardoa egin dezakezu.

Euskal Herrian 27 sagar klase desberdin zeudela egiaztatu zenuen. Nahasketa onena zein izango litzakeen azterzea gustatuko al litzazuke?

Bai, oso gustuko nuke sagar barietate desberdinak erabili eta zein sagardo ekoizten den aztertea.

Tesian horrelako esperientzi bat jorratu nuen urte betez eta berriz errepikatu beharko nuke datuak berdinak diren jakiteko.

Ba al zenekien Lasarte-Oriako hamarkadan 30 bat sagardo ekoizle zeudela eta orain bakarra dagoela horretan lanean?

Bai, bagenekien, baina ez genuen pentsatzen hainbeste ziren. Hemen ere, zalantzarik gabe, industrializazioaren eraginez landare inguruarekin zer ikusia duten lanbideak utzi egin dira.

Ahalegin, neke eta ardura handia eskatzen zuen, eta lantegietara, industrietara, joan ziren lan egitera; landa eta baserria bigarren maila batean geratu zen.

Zure bizitza profesionalen nondik jo duzu?

Unibertsitatean ari naiz lanean, EHUko RMN SGIKER zerbitzuan, RMN teknikoak naiz. Sagardo ekoizle batzuekin lanean bat egiten saiatuko gara.

Honetaz gain, Domingo Arina, enologoarekin lan egiten dut. Hau 30 sagardo ekoizlerekin ari da lanean. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainean antolatzen duen Sagardo txapelketan datatzailea naiz.

Amore eman duzu ala teknologia laster ekoizpenean erabilliko dela eta ikerketekin jarraitu ahalko duzula uste al duzu?

Ez dut amore eman eta teknologia berriak oso garrantzitsuak dira, baina lehengaia sagarra eta honen osaketak garrantzia handiagoa dute.

Ardo ekoizpenean egin zuten lehenengo gauza mahats barietateak ezagutzea izan zen eta hori oinarritzat hartuta beste guztia egin zuten. Nire ustez, hori izan beharko litzake erronka eta bidea. •

Pasta, euskara eta giro ona nagusi ostegunean solaskideen afarian

■ Pasta, saltsa ezberdinekin nahastuta, menu paregabea harremanak sendotzeko
■ 80 pertsona ari dira solaskide proiektuan, 20 euskaldun zahar eta 60 euskaldun berri


12 urte pasa dira Solaskide programa Lasarte-Orian abiatu zenetik. Hasieran taide handitan bitzen ziren euskaldun zaharrek eta euskaldun berriak elkarrekin hitz egiteko. Duela bi urte birakuntza eman, eta orain taide xikitzen bitzen dira, gehienez lau euskaldun berri eta euskaldun zahar batekin taidea osatuz. Gainera, orain parte hartzen dituzten zalebatasunak arreta gehiago jartzen da, inguruko profila dituenak elkartzeko. Hala ere, euren taldeetara soilik ez mugatzeko, eta harremanak sortzeko atari ederra antolatuta zuten pasa den ostegunean. Lotsak kenduz, euskaraz gozatu zuten.



Maipei baten inguruan aritu ziren 28 solaskide, jan eta jai: hitz eta pizza.

Itxaso MORENO
Euskaraz ikasten ari zarenak Lota duzu beselekin hitz egiterako orduan? Zure inguruan praktikatzeko inor ez? Ba jarraitu solaskide programan dauden 60 euskaldun berrien pasauk.

Euskaraz ikasi eta gero eguneroko bizitzan praktikan jarriko zaitelarik izaten daude ikasleek, eta hain juxtu horren harira, gabezia Mintzalaguna egitasmoa duela 12 urte. Beraren funtsa zubi lana da, eguneroko bizitzan euskara praktikan jarriko. Euskaldun berriak lotsa galduta behar du, eta "solaskide programan hitzuntza komunitatean integratzeko aia da" aipatu digu programan honen arduradunak. Guro herrian baditugu euskaraz soilik luntzionalaren duten espazioak eta "horiek eskaintzen dituzten solaskideri". Gainera, euskaraz dauden ekintzei buruzko informazioa eskaintzeko da baretai mutuen bitartez, "hilabetero aldatuako ditugu, informazio eguneratuarekin".



Esperientzia profila eta abaragaria da euskaldun zahar batenetako proiektua.

zioa behar beharrezkoa da. "Zuek ez duzue zailtasunik izan ikasterako orduan edo euskaraz jarduteko, baina ten ari direnak lagundu nahi? Egin zaitoz solaskide".

Euskaldun berriek ikaragarriko abahaginak egiten dituzte euskaraz ikastea, bai diru eta baita denbora aldetik, eta hori egin eta gero arazo batekin egiten duela topo "praktikan jarri ezina eta horiek frustrazio handia eragiten die".

Izan ere, nahi izan dituelako ikasi duite eta ez behar eraztasuna galtzea argin die da praktikan jartzen laguntzea "eta hor dugu aztertu gabeko "astean ordu bat baino ez da eza zoz diegu egiten ari diren eraldatze proiektuan nahioko, Aukera polita dute bezar, solaskide programan murgilduz eta erdi abaztuta duten hizkuntza horretan berriro ondo muntatzeko".

Zaleatasunei begira

Solaskide izan nahi duenak Tekimutik pasatzea baino ez du Beran, "euren profila ikusleko inkestak txiki lot egiten buruz informazio jasozkoak eta ondoren elkar hartu gabe "jendea etortzen bada saiatzeko". Aipatu bezala, solaskide programa ez da soilik hitz egiteko biera bat, parte hartzailei euren zaleatasunak euskaraz egiteko aukera ere eskaintzen zaie.

"Kantuan aritzea gustuzten zaizula, Xumela abesbatza duzula, kultura, kondairak, ohi-tura eta ibilteza duzula gustuko? Oinatz talde zure zain dago. Aliz eskutian dagoela zure trebezia, ba eskulanean ikastean parte har dezakezu. Ordu zure zaleatasuna pota-trean dagoela, lasa, horretan dek egin duite horren aldeko apustua, zuk gure sarean sartu ere euskaraz aritu zaitzake. Ostegunero 20:30etan jalgin izateko apostua".



Eguneroko bitzian euskarari lekua egin eta bertan murgiltzen dira.

duzu zain. Ez baldin baduzu asiero potoean ibili nahi, ez duzu zertan ibili beharrik, nahi duzunean hain izango tzeaz gain, zure zaleatasunak ere euskaraz egin ditzakezu. Murgildu euskarara munduan".

Zure euskaraz traketza da?

Herritar ugari dago gure artean euskaraz traketua, ahaztuta edota herdoituta duteak. Bere garaien euskaraz ikasi zuten, baina ez erabiltzeko. Aukera polita dute bezar, solaskide programan murgilduz eta erdi abaztuta duten hizkuntza horretan berriro ondo muntatzeko".

Ahoz ahoko propaganda

Kurso hasieran euslelogitara joaten dira solaskide programara. azaltzeri, "inongo beselako propagandari egin behar hori ikusten duela da". Gainera, urtean zehar solaskideen kopurua igotzen da "programan dabiltzanak dira gure propagandak omena". Parte hartzen dituenek gomendatzen badute, "bailagarria izango dela kotoan gaude eta lanean jarraitzeko gozoko bizitena ditzekigu".

Euskaldun zaharren eta euskaldun berrien artean, auzerik auzerik eta giza harreman garrantzitsuek sortzen dira. Herrian jada 80 solaskide egin duite horren aldeko apustua, zuk gure sarean sartu ere euskaraz aritu zaitzake. Ostegunero 20:30etan jalgin izateko apostua".



Propaganda omena ahoz ahoko izan da, horretan lotu du programa honek gorantzko joera nabaria.



Solaskide programa euskaraz auzerik auzerik gehiago, harreman eta erlatzo sendoak ateratzen dira bertatik.

Mac Nagues Hitzeko euskara berreskuratzen

'Lotsa eta beldurra kendu dut'

Mac Nagues ez da euskaldun berria. Txikian euskaraz mintzo zen, baina eraztasuna igailu zuen. Solaskide programan duela ure bete beldurra eta lotsak alde batera utzi, euskaraz bizitzaren ikasten ari da berriro ere.

Nolako izan da esperientzia?
Pirineoetara. Udan ere ez diegu elkarrekin gertatzen luzi. Elkarrizketan pasatzen ditugun orduak. Edozein arazo zela medio, asko nabatu du. Txipi aldean izan duela ematen du, eta berriro erdararako joera hartzen du. Beraz, astero elkarrekin, hitzeko euskaraz berreskuratzeko nire desioa betetzen ari da.

Nolatan sartu zinen solaskide programan?
Euskaraz ulertzen nuen, baina ez hitz egiteko galarik nukan erabat. Berreskuratu nahi horrek bultzatu ninduen programan sartzea. Beldurra eta lotsa ikaragarria sentitzen nuen hitz egin behar nuen.

Erosketak ere elkarrekin egin dituzte, ezta?
Bai. Gainera gogoratzen naiz hasieran kolonia bat erostera joan ginen. Bertako dendariak ez zekien euskaraz eta azkenean bukatu ginen. Lehenengo eta azkeneko, horiek aurrera gure artean beti euskaraz egingo genuela esan ginen.

Maiprekin erostekak egiten dituzte, ezta?
Bai. Maiprekin erostekak egiten dituzte, eta horiek aurrera latsa kendu dit. Esaldiren batean trabatu zuten gero, bertan lagundu eta erosoago sentiarazten nau.

Ordu bete z solaskide programan?
Euskaraz ulertzen nuen, baina ez hitz egiteko galarik nukan erabat. Berreskuratu nahi horrek bultzatu ninduen programan sartzea. Beldurra eta lotsa ikaragarria sentitzen nuen hitz egin behar nuen.

Ordu bete z solaskide programan?
Euskaraz ulertzen nuen, baina ez hitz egiteko galarik nukan erabat. Berreskuratu nahi horrek bultzatu ninduen programan sartzea. Beldurra eta lotsa ikaragarria sentitzen nuen hitz egin behar nuen.

Ordu bete z solaskide programan?
Euskaraz ulertzen nuen, baina ez hitz egiteko galarik nukan erabat. Berreskuratu nahi horrek bultzatu ninduen programan sartzea. Beldurra eta lotsa ikaragarria sentitzen nuen hitz egin behar nuen.

Ordu bete z solaskide programan?
Euskaraz ulertzen nuen, baina ez hitz egiteko galarik nukan erabat. Berreskuratu nahi horrek bultzatu ninduen programan sartzea. Beldurra eta lotsa ikaragarria sentitzen nuen hitz egin behar nuen.

Nerabeak eta euskara aztergai Udaltop topaketan II. edizioan

- Euskara Zerbitzuen bigarren jardunaldien aurkezpena egin zen ostiralean Foru Aldundian
- II. Udaltop-ek Manuel Lekuona kultur etxean izango du leku apirilaren 21ean eta 22an

Euskara-Zerbitzuen II. Topaketak aurkeztu zituzten ostiralean Gipuzkoako Foru Aldundian.

Bi lasarte-oriak izan ziren aurkezpenean: Estibalitz Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zuzendari nagusia, eta Ricardo Ortega, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeko burua izan ziren ostiralean Foru Aldundian Udaltopeko II. edizioko xehetasunak eman zituztenak.

Aurten landuko den gaia *Nerabeen aisia eta lagunartea* izango da eta *Zer eta nola egin daiteke udaletatik nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?* galderari erantzuna ematen ahaleginduko dira.

Jardunaldien bigarren edizio hau apirilaren 21ean eta 22an izango da eta, berriz ere, Manuel Lekuona kulturetxean izango dute leku.

Euskara teknikarien bilgune

"Iaz bezala, topaketa hauen helburua Euskal Herriko euskara teknikariak bildu eta urteroko elkargune bat izatea da", adierazi zuen Estibalitz Alkorta Aldundiko euskara zuzendariak.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeko buruak, Ricardo Ortega azaldu zenez, "Topaketak urtero egiteko asmoarekin jaio dira. Urteroko hitzordua izan nahi dute."

Iaz 120 lagunek parte hartu zuten jardunaldietan, erdiak udal ezberdinetako euskara teknikariak ziren eta beste erdiak udalez kanpoko teknikariak.

Teknikari horiek guztiak Euskal Herriko hegoaldekoak ziren. Horregatik, aurten, iparraldean hasi berriak diren udaletako euskara teknikariak bereiziki gonbidatu dituztela nabarmendu zuen Ricardo Ortega.

Berrikuntzak sarean

Hau guztiaz gain, aurtengo jardunaldietan hainbat berrikuntza, nabarmen egon direla ere azpimarratu zuten, bloga eta sare sozialak.

Iaz www.udaltop.com webgunea jarri zen martxan eta aurten bloga gehitu zaio.

Honen bitartez, antolatzaileen eta parte-hartzaileen arteko harreman eta komunikazio zuzena sustatu nahi izan dute.

Nerabeengan eragin

Bestalde, Facebook eta Twitter sare sozialetan Udaltop erabiltzaileak sortu dira Era honetara, sare horretan zabalitzen den informazioa partekatu eta sare anitzagoetara zabaldu daiteke.

Gainera, jarduera horrek bat egiten du aurtengo topaketan izaerarekin eta mamia-rekin; nerabeen artean nola eragin, hain zuzen ere.



Estibalitz Alkorta, Aldundiko euskara zuzendari nagusia eta Ricardo Ortega, Udaleko Euskara batzordeko burua aurkezpenean.

Izena ematea

Nahiz eta Udaltop Udaletako Euskara teknikariek zuzendua egon, gainerako teknikariek eta gaian interesatuek ere eman dezakete izena.

Matrikulazio epea gaur zabaldu da eta Internet bidez, www.udaltop.com web orrialdean egin behar da.

Prezioa iazkoaren berdina izango da 80 euro, bi egunetako bazkariak barne.

Hala ere, gaia zein den ikusita, 25 urtez azpiko ikasleentzat 25 euroko beste matrikula bat ezarri dela jakin arazi dute. Hilabeteko epea dute interesatuek izena emateko. •

II. Udaltop-eko egitaraua

Aurtengo gaiak, iazko jardunaldietako balorazioetatik eta parte hartu zuten teknikariren proposamenetatik abiatuta aukeratu direla azaldu zuen Lasarte-Oriako euskara batzorde buruak.

Honela, Udaltop-eko II. edizio honetako aurkezpen ekitaldian, besteak beste, aurtengo egitaraua eta bertan izango diren hizlarien berri eman zen.

Honela, *Iparraldea 21* dokumentalarekin hasiko da aurtengo edizioa.

Teoriaren atalean, Pello Jauregi irakasleak, *Esku hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratura* ponentzia dago.

Ikerketa eremuan, berriz, *Gazteen erabileraren korapiloa begi-bistan* azterlana izango dute mintzagai Jaime Altunak eta Asier Basurtok.

Horretaz gain, Kultura Sailko Hizkuntza Politikarako sailburuordetzako koordinazio zuzendariak, Igor Calzadak HPS sare sozialen gainean egiten ari den ikerketaren berri emango du.

Gaiarekin lotuta, Gotzon Egiak gidatutako *Nerabeak, sare sozialak eta euskara* mahai-ingurua egingo dute Gorka Julio eta Luistxo Fernandezek.

Eta *Zer eta nola egin daite-*

ke udaletatik nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko? galderari erantzuteko, hainbat esperientzia ere izango dira topaketan.

Bermeon, Euskara Zerbitzuak nerabeekin egindako esperientzia kontatuko dute Maite Alvarezek eta Iñaki Lopezek.

Ikastetxeetako esperientzien artean, alde batetik, iparraldeko gazteei zuzendutako *Glissegunaz* hitz egingo dute Seaskako Ramuntxo Etxeberri eta Estelle Goñik. Beste-


tik, Jaime Altunak Deban martxan jarri duen HEZHIZ, Hizkuntza Heziketarako dinamizazioa programaz hitz egingo du.

Aisialdiko eta lagunarteko programez jarduteko, Kultur Kabiako Aritz Escandon eta Ttakun Kultur Elkarteak lagunak izango ditugu.

Eta Alberto Irazuk, *Nerabe eta gazteen kultur kontsumoa: Gaztezuloren esperientzia* azalduko du ere.

Jardunaldietan aurkeztuko diren ponentzia hauek guztiak, martxoaren 5etik aurrera, webgunean zintzilikatuko direla jakin arazi zuten.

Era honetara, iazko ildoak jarraikiz, hizlariak ez dute ponentzia errepikatuko, idatzitako osatu eta teknikariek ideiak trukatu baiziki. •



Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxea, berriro ere, Udaltop Euskara Zerbitzuen jardunaldien egoitza izango da.

Egunero

Erakusketa

LASARTEKO AUTO-ZIRKUITUAREN ERAKUSKETA, Kutzaren fototekako parte diren 85 argazki ikusgai erakusketa aretoan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Astelehena, 22

Zinema soziala

Danak Kidek antolatutako VI. ZINEMA SOZIALAREN Zikloaren barruan, LA JOVEN DE LA PERLA filma eskainiko dute eta ondoren ARTEA ETA GIZARTEARI buruz arituko dira. HIZLARIA JOSE JAVIER FERNANDEZ izango da. Kulturetxean, 17:30ean.

Asteazkena, 24

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZAK ipuin bat irakurriko die liburategira hurbiltzen diren haur guztiei. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan. EUSKARAZ.

Ostirala, 26

Sari-banaketa

BERTSO PAPER LEHIAKETAREN sari-banaketa egingo da Kulturetxean goizeko 10:30ean. Saioan Uxue Alberdi eta Ane Labaka izango dira kantuan.

Hitzaldia

LA SALUD A TRAVÉS DEL CUIDADO DE LA COLUMNA VERTEBRAL hitzaldia emango du Juan Alonso kirolpraktikoak. Kulturetxean, 19:00etan, GAZTELANIAZ



Komedia osteguneko filmean

EL JEFE DE TODO ESTO filma eskainiko du Okendo Zinema taldeak. Lars Von Trier-ek zuzendutako film honetan, teknologia enpresa bateko jabearen gora beherak ikusiko dira. Enpresa sortu zuenean lehendakari bat asmatu zuen hainbat erabaki bere izenean hartzeko. Orain saldu nahi duenean, erosleek lehendakari faltsu horrekin hitz egin nahiko dute...

OSTEGUNEAN, HILAREN 25EAN
KULTURETXEAN, 21:30EAN
SARRERA, 4,15 EURO

Bakarrizketa

Ruben Arrospidek bakarrizketa eskainiko du Xpression eta Gazteria sailak antolatzen duten Gazte ekimenean Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Kontzertua

U.K. BILL rock taldearen emanaldia. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan.

Larunbata, 27

Kontzertua

ANDALUZIAKO EGUNA ospatzeko emanaldia Kulturetxean, 19:30ean.

Igandea, 28

Zinea

IGELAK ETA ZAPOAK filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan. EUSKARAZ.

Oharrak

Odola emateko eguna

Hilero bezala, gaur odol atezatzeak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Etzeraten elkarretaratzea

Hilero bezala, datorren ostiraletan Lasarte-Oriako Etzeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da otsailaren 24an 17:30ean.

Udaltzainek jasotakoak

Udaltzainen bulegoak herritarrei jakinarazten die ondoko gauza hauek daukatela jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, zilarrezko eskumuturrekoa, Seiko markako bi eskumuturreko erloju, Viceroy markako eskumuturreko erloju, Massimo Dutti markako eskumuturreko erloju, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, Symbol markako makina, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erloju, Suzuki markako motozikleta kaskoa eta zilarrezko belarritakoa. Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte (goizez, 09:00-13:00). Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

6 Nazioak Errugbyko porra

Beltzak Errugby taldeak 6 Nazioak lehiaketako porra antolatu du. Saillkapeneko 6 postuak asmatzen dituzten artean, Jalai taberna bi pertsonentzako afaria eta Zigako landa-etxean 2 pertsonentzako astraru pasa zozketatuko dira.

4. jardunaldiara arte, hau da, martxoaren 13ra arte dago porra egitea. Aldatzekua, Txema taberna, Gure etxea, Insausti, Ilargi, Jalgi, Txanpa, Xirimiri eta Udaberri tabernatan porrako txartelak eskuragarri daude. Anima zaitzete!

Helduentzako igeriketa

Martxoaren 1etik apirilaren 19ra, helduentzako hasiera eta erdi mailako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian. Astean 3 saio izango dira (astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan), 20:30etatik aurrera. Izena emateko azken eguna otsailaren 25a da. Ikastaroak 103,30 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 57,40 euro.

Ostadarren federatzeko aukera

Ostadarreko zikloturista taldeak martxoan hasiko du denboraldia. Taldean parte hartu nahi duen orok, Ostadarreko egoitzan, Geltoki kalea 25, izena eman dezake eta federatu daiteke.

Era berean, mendian federatu nahi duen mendizale edo mendi krosetako korrikalariak edo horretarako informazioa nahi duenak kirol fundaziora jo edo 943 360 433 zenbakira deitu dezake.

Marrazki eta pintura eskolak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarrekin jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitzak

Pentsioen defentsan

Pasa den mendeko 30. hamarkadatik jasaten ez genuen krisi ekonomikoko kapitalistan barneratzen ari ginela, Zapaterok krisi ekonomikorik ez zegoela aipatu zuen.

Halaber, murrizketa sozialik ez zela egongo gaineratu ere, eta azkenean, nazioarteko finantza, banku eta politika eskuindarren presioari amore emanik, langile-klasearen eskubideak eta lorpenak erasotzen dituen zuzenezko plana mahai gainean jarri du.

Hau da, jubilazio garaia 65 urtetatik 67ra igoko duela iragarri du; orain arte bitzita laboraleko azken 15 urteak kontuan hartzen baziren pentsioen kalkulua egiterakoan, hemendik aurrera azken 20 edota 25 urteak kontuan hartzeko mehatxua luzatu du; alargun eta umezurtzen diru-sarreraren beherapena eta honekin batera, inbertsio eta lan publikoan murrizketa suposatuko duen plan gogorra...

Hau guztia, saihestezinezko kolpea da, babesik ez duten pertsonentzat, langileentzat, gazteentzat, emakumeentzat...

Jubilazio garai 67 urtetara atzeratzeko arrazoi ekonomikorik ez dago. Pentsio sistemen egoera finantzarioa positiboa da, izan ere, 2009an 8.000 milioiko superabita egon zen eta erreserba fondoak 60.000 milioiak gainditzen ditu.

Giza arazoirik ere ez dugu aurkitzen jendeak bi urtez gehiago lan egiteko. Gezurra diote jendeak 50 urterekin jubilatzeko dela aipatzen dutenean. Izan ere, estatu espainolean jubilazioaren media 63 urteetan dago (Alemanian 61,5 urteetan, Italian 60,8an eta Frantzia 59an).

Gainera, gazte langabezi tasari erreparatuta, jubilazio adina atzeratzeak gure gazteen etorkizuna galarazi eta atzeratu baino ez du egingo.

Gehien duenak gehiago ordaintzean dago alternatiba. Gehiago ordaindu beharko lukete oparotasun urteetan poltsikoak bete dituztenak, hala nola, bankuak eta multinazional handiak. Aberatsenek eta ondasun gehiago dituztenek askoz gehiago ordaindu behar dute. Onartezina da langilegoari pentsioak murriztu nahi izatea eta BBVAko lehendakariak 65 urte betetzean 79 milioi euro jasotzea.

Bide bakarra mobilizazio zabalera eta bateratua da. Alde batetik, gobernuaren neurriak atzera botatzeko. Deituak dauden mobilizazio sindikalak, indarra batzeko lehenengo neurria izango dira. Jendetsuak eta kementsuak izan behar dute, eta gobernuak ez badu bere planteamendua atzera botatzen greba orokorrerako bidea hartuko dugu, "pensionazo" behin betiko baztertzea lortzen dugun arte.

Michelin
Lasarte-Oriako
ESK sekzio sindikala

Jalgiko bertso saioak inauteria luzatu zuen

Jon Martin, Xabier Silveira, Unai Muñoa eta Ana Labaka ikusteko bete egin zen Jalgi

Bertso-aldi bikainak eskaini zituzten ostegunean, oraindik inauterietako mozorroa kendu gabe zuen Jalgi tabernan, Jon Martin, Xabier Silveira, Unai Muñoa eta Ane Labakak. Guztiek erakutsi zuten saioan zehar puntako bertsolariak direla eta bikain kantatzen dutela ere bai. Jalgin, Aitor Atxega eta bere gitarraren laguntza azpimarragarria ere izan zuten bertsolariak tarteka eta oso ondo moldatu ziren. Beterriko III txapelketa irabazi berri duen Unai Muñoa eta Ane Labaka herritarrak ondo aritu ziren. Aurreko asteburuan eskuratu zuen Villabonan Beterriko txapela Sorgin-orratzen taldeak (Unai Muñoa lasarteoriatarra, Ander Lizarralde oiartzuarra eta Iñaki Apalategi beasaindarra).

Jon ALTUNA

Jalgi bete egin zen Xabier Silveira, Jon Martin, Unai Muñoa eta Ane Labakaren bertsoak entzuteko. Aitor Atxega herriko musikariak ere parte hartu zuen saioan eta tarteka bere gitarraren musika jarri zuten bertsolarien doinuei. Ederki moldatu ziren hauek musikariaren laguntzarekin.

Gainera, aurkezpenik behar ez duten bertsolariak aurkezpena egin zuten koplatan Aitor Atxegak bertso saioaren hasieran. Launa koplak bota zizkien, Silveirarekin hasita: "Lesakako estilo tuneatua, Maradonan niki txirriteatua, Ezagun dira bere, senak, Baina ez ditu esan, denak"... izan ziren lehen biak.

Muñoari ere lau koplak kantatu zizkien Atxegak: "Esaldi zorrotza, bulla txikia, Gaurko bertsoaren Lazkao Txikia, Puntu gazi-gozaok, guztiz, Puntu gazi-gozaok, eztiz. Umetan hasia bertsoai lotzen, Geroztik joan zera maila igotzen, Adikzioa sortzen zaizu, Adikzioa sortzen maixu".

Jon Martinen abildadeak ere aipatu zituen musikari lasarteoriarrak: "Oartzuarrak da kriston makina, (...) Errima dezake Jon maguak, Goguak emateyon..... rima!. Gipuzkuan behin susto latza eman zigun, Ikaratu zitun Maialen ta Irun, Egin lezake hainbat, neurritz, Egin lezake hainbat, berriz". Eta azken koplak Ane Labakari eskaini zizkion Aitor Atxegak doinu berezian: "Bi kanpotar dira ta bi herriko, Lasai egon ez gara eroriko, Luzituko gara ez kezka, Pun-

ttu puntuan dago neska. Anek ateratzen duen iturriak, asetzen ditu bertso egarriak, beti ateratzen du ona, arrazoi ta umore toña".

Amairan giroa bero

Handik aurrera Jon Altunak jarritako gaiak erantzunez saio polita osatu zuten bertsolariak. Gauerdira arte luzatu zen 8:30etan hasitako saioa, tartean ordu erdiko atsedean batekin. Denetarik eta hainbat paperetan kantatu behar izan zuten bertsolariak, preso den bost seme alaben guraso, trabesti, basajaun, kirolari edo langabetu besteak beste.

Azkenerako asko berotu zen giroa, bertsolariak jende artera ere jaitsi ziren. Berobero, Aitor Atxega berak eta gai jartzaileak ere bertsoan amaitu zuten Tim Burtonen mozorroa jantzia, festa luzatzeko prest segitzen zuen, Jalgi tabernan.

Ikusleen artean ziren beste zenbait bertsolari, oholza gainekoak ikustera etorriak: Ainhoa Agirreazaldegia, Uxue Alberdi eta Amaia Agirre. Beraiekin zen Eñaut Elorrieta Ken Zazpiko abeslaria ere. Hain juxtu Uxue Alberdi eta Eñaut Elorrieta Lasarte-Orian izango dira bi aste barru Arrieskalletan elkarte honek Ttakun eta Bertso Eskolarekin batera antolatzen duen afarian. Eñaut berak sarri kontatzen du Ken Zazpi taldeak lehen Kontzertua Jalgin eman zuela eta gehiago zirela oholza gainean jotzen ari zirenak behean ikusten zirenak baino. Urte batzuk geroago Ken Zazpi Okendoko plaza beteko zuenik ez zuten pentsatuko orduan, noski. •



Aitor Atxegaren musikak ederki girotu zuen Jalgiko bertso saioa. Umorea eta saltsa izan zen gauerdira bitartean.

Aitor Atxegak egin zuen bertsolarien aurkezpena koplatan

Musikariak eta gai jartzaileak ere bertsoan amaitu zuten saioa gauerdian

Arrieskalletako bertso-afaria martxoaren 6an izango da

"Hitzaren jolasa, musikaren koloretan", leloa hartuko du aurten Arrieskalleta elkartearen urtero antolatutako bertso afariak. Martxoaren 6an egingo da iluntzeko 21:00etan hasita eta saio berezia izango da. Bertsoan: Maialen Lujanbio txapelduna eta Uxue Alberdi arituko dira eta nobedadea Eñaut Elorrieta, Ken Zazpi taldeko abeslariaren partaidetza izango da. Musikari bizkaitarrak gitarra jo eta abesti batzuk kantatuko ditu Arrieskalletara hurbiltzen diren ikusleen aurrean. Unai Muñoak gidatuko du saioa.

Afarira joateko asmoa dutenek txartelak Jalgin dituzte salgai 20 eurotan. Arrieskalleta elkarteak kideek prestatutako duten afariko menua ondorengo da: zizka-mizkak, arrain zopa, basa-txerriaren txerri masailak saltsan, postrea, kafea eta kopa. Ondoren etorriko dira Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdiren bertsoak. Afarira joateko ez da derrigorrez Arrieskalletako bazkide izan behar, edozeinek hartu dezake txartela eta bertsoetaz gozatzera joan.

Bertso afariaren antolatzailerak Arrieskalleta elkartearekin batera, Ttakun Kultur Elkarte eta Lasarte-Oriako Bertso-eskola dira. •



Bukaera aldera bertsolariak jende artetik aritu ziren. Unai Muñobaren atzean martxoak 6an Arrieskalletan kantatuko duten Uxue Alberdi eta Eñaut Elorrieta.